



Tolosaldeko 9 bertsolari ariko dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

EGUTEGIA ▶ Irailaren 22an hasiko da Orion eta abenduaren 16an izango da finala Donostian

PARTE-HARTZAILEAK ▶ Denera, 79 bertsolari ariko dira; hauen «aniztasuna» nabarmendu dute ▶ 2

TOLOSA ▶

Garagardo Festa bihartik igandera

22 garagardo mota desberdin aukeran, Zerkausian ▶ 3

ZIZURKIL ▶



HITZA

Arantzazuko Amaren 50 urteak argazkitan

Argazki erakusketa jarri du Atxulondo Kultur Elkarteak ▶ 5

TOLOSA ▶

Emakume Arraunlarien I. Topaketa egingo dute

Oria ibaian izango da, hilaren 29an ▶ 3



Gotzon Etxeberriaren Olibondoak, Aranburun ikusgai

TOLOSA ▶ Aranburu Jauregian ikusgai dago urriaren 6ra arte Gotzon Etxeberria andoaindarraren *Olibondoak badu bihotzik* erakusketa. Pintura eta eskultura lanak jarri ditu bertan artistak. Eskulturretan, olibondoekin egin dituen lanak dira nagusi. 300

urte inguru dituzten olibondoan adarrak dira erabili dituenak. Bere hasierako obretan espazioak garrantzia bazuen, azken hauetan, denborak du pisu gehien. Heriotza, gaisotasuna, mina... «gizarteak tapatu nahi duen heldutasuna» adierazten dute. i. t.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA ▶

Tolosaldeko 9 bertsolari ariko dira Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan

Irailaren 22an Orion hasi eta abenduaren 16an finala izango da Illunbe zezen plazan; 79 bertsolarik parte hartuko dute



Felix Irazustabarrena, Estibaliz Alkorta, Iñaki Almandoz eta Oroitz Azurmendi, atzoko aurkezpenean. n. i.

OROITZ AZURMENDI ▶ KOORDINATZAILEA

«Bertsozaleek txapelketarekin gozatzea litzateke plazer handiena»

Iazko azarotik txapelketaren antolakuntzan buru-belarri ari da Oroitz Azurmendi oartzuerra. Gainera, harentzat lehen txapelketa izango da koordinatzaile lanetan.

Iaz hasi zineten txapelketa prestatzen. Nola joan da orain artekoa?

Gogorra izan da, batez ere nik urtarrean hartu nuelako lur hemen. Antolakuntza taldea osatuta zegoen, eta jendea lanerako gogo handiz. Urteko plana egina zegoen, eta hori

aurrera eramaten ari gara.

Bertsozaleetara Gipuzkoan indartsu dagoela diozu. Zein emaitza espero dituzue?

Gipuzkoan dauden bertsozaleek txapelketarekin gozatzea litzateke nire ilusio handiena. Gozatzea, aspaldian gozatu ez duten bezala, bai saioekin eta baita bertsolariekin ere. Hori litzateke niretzat plazer handiena, bertsozale guztiek txapelketa honekin gozatu ederra izatea.

Maila ona duten bertsolariek parte hartuko dute. Bertso saio onak izango al dira?

Saio guztiek bete-beteko maila emango dutela, eta beren erakargarritasuna izango dutela ez dugu zalantzarik. Parte hartuko duten bertsolarien curriculuma ikusita argi geratzen da hori. Denetik dago: aurtan

lehen saltoa dutenak, plazan orain ez dabilzanak baina sari asko irabazi dituztenak... Beraz, kalitatea bermatuta geratzen da.

Parte-hartzea igo egin da aurtan. Espero al zenuten?

Igoera espero genuen, baina hainbestekoa ez. Horrek ezustean harrapatu gintuen, baina ilusio handiz hartu genuen, hori Gipuzkoan dagoen oinarriaren erakusgarri delako.

Illunbe zezen plaza aukeratu duzue finalerako. Zergatik?

Erosotasun handia ematen digulako antolakuntza aldetik eta entzuleen aldetik. Bestalde, itxura aldetik ere garrantzitsua da: leku berria da, jendea sorpresaz hartuko du eta horrek erakargarritasuna sortuko du. ◀

NAGORE IRASTORZA

Bat baino gehiago harrirituko zen egunotan *Gpuntua* lelodun iragarkiak ikustean. Askotarikoa adierak izan ditzakeen arren, 2007ko Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaz ari da. *G puntua*-k Gipuzkoako bertsozaleetaren oinarria adierazten du, eta hilaren 22an abiatuko den Bertsolari Txapelketaren irudia eta leloa da. Felix Irazustabarrena eta Oroitz Azurmendi Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen presidentek eta koordinatzaileek aurkeztu zuten txapelketa. Estibaliz Alkorta eta Iñaki Almandoz Foru Aldundiko eta Kutxako ordezkariekin batera.

Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen aurtengo erronka txapelketa antolatzea da, eta horretarako, ahalegin handia egiten ari da. «Gure proiektuaren eta lanaren erakuslehoia eta emaitza izango da txapelketa. Gipuzkoako bertsozale oso indartsu dago eta txapelketak hori erakutsiko du», esan zuen Irazustabarrenak.

Ido horretatik, aurtengo sekula baino parte-hartze handiagoa izan dela nabarmendu zuen Azurmendik. Guztira, 79 bertsolarik, zazpi gai-jartzailerak eta 19 epailek parte hartuko dute. Parte-hartze handiaz gain, aniztasuna da txapelketaren ezaugarrietako bat. Bertsolari gazteak —Arnaitz Lasarte— 18 urte beteko dituzten txapelketan, eta zaharrenak, berriz, —Joanito Mitxelenak— 54 urte ditu. «Curriculum handiko bertsolariek parte hartuko dute, horietako asko gazteak, eta mailari dagokionez, jautzi kualitatiboa eman dugu».

Lehen saioa irailaren 22an jokatuko dute Orion eta final handia, berriz, abenduaren 16an, Donostiako Illunbe zezen plazan. Zezen plazako 8.000 eserlekuak betetzea espero dute. «Erronka berria da Illunbeko, lehen aldiz jokatu baita txapelketa bertan. Ilusio handia dugu eta eserleku guztiak betetzea espero dugu».

Orain dela lau urte finalera iritsi ziren bertsolarietatik zazpi zuzenean sartuko dira final laurdenetan. Maialen Lujanbio azken txapelketako irabazleak ez du parte hartuko.

Txapelketaren inguruko xehetasunak, saioen audioak zein argazkiak www.gpuntua.com helbidean eskura daitezke.

EGUTEGIA ▶

SAILKAPEN FASEA

Irailak 22.

▶ Orio.

▶ Legazpi.

Irailak 23.

▶ Hernani.

▶ Zaldibia.

Irailak 29.

▶ Usurbil.

▶ Zumarraga-Urretxu.

Irailak 30.

▶ Hondarribia.

▶ Arrasate.

Urriak 6.

▶ Ataun.

▶ Getaria.

▶ Elgeta.

▶ Errenteria.

FINAL LAURDENAK

Urriak 20. Azkoitia.

Urriak 21. Irun.

Urriak 27. Eibar.

Urriak 28. Zumaia.

Azaroak 4. Tolosa.

FINALAURREKOAK

Azaroak 17. Eskoriatza.

Azaroak 24. Oiartzun.

Abenduak 1. Ordizia.

FINALA

Abenduak 16. Donostia

(Illunbe zezen plaza).

TOLOSALDEKOAK ▶

- ▶ Amaia Agirre (Villabona, 1977).
- ▶ Aritz Garin (Zizurkil, 1989).
- ▶ Iñigo Gorostazu (Berastegi, 1987).
- ▶ Bixente Gorostidi (Amezketza, 1973).
- ▶ Beñat Iguaran (Villabona, 1988).
- ▶ Jexux Mari Irazu (Larraul, 1972).
- ▶ Aitor Mendiluze (Irua, 1975).
- ▶ Unai Muñoz (Berrobi, 1982).
- ▶ Arkaitz Zelaia (Bidania-Goiatz, 1982).

HITZAren babesak

Bertsolaritza sustatu eta babesteko helburuarekin, HITZAK ere parte hartuko du Txapelketan, eta Eskoriatza, Oiartzun eta Ordiziako finalaurrekoak babestuko ditu. Aldi berean, eskualde desberdinetako HITZA egunkariak saioen jarraitza zehatza egingo dute, lehen saiotik finalera arte.



TOLOSA ▶

Emakume Arraunlarien I. Topaketa egingo dute

Oria ibaian jokatu da hilaren 29an; Gipuzkoa eta Bizkaiko arraunlariak ariko dira

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Arraun Klubeko neska Emakume Arraunlarien I. Topaketa antolatzen ari dira. Ekitaldia hilaren 29an izango da, Tolosako Oria ibaiaren uretan, eguerdiko 12:00etatik aurrera. Bizkaitik ondarrutarrak; Gipuzkoatik oriotarrak, zumaiarrak, pasaiatarrak, donostiarrak eta hondarribitarrak etorriko dira. Tolosaldeko neska arraunlarietako bat, hainbat jolas eta lehiaketetan parte hartuko dute.

"TAK-eko en esanetan, egitasmo honen helburua da, «kostaldeko arraunlariak barnealdeko uretan elkartzeko eta guztiak batera egun atsegin bat pasatzea».

AMEZKETA ▶

Ugarteko jaiak antolatzeko bilera gaur izango da

Urriari ospatuko dituzte; asteazkeneko bilduko dira elkartean jai batzordekoak

ERREDAKZIOA

Amezketako Ugarte auzoko jaiak prestatzen hasiak dira. Gaur jai batzordea elkartuko da bigarren bilera egiteko.

Ugarteko elkartean bilduko dira iluntzean, 21:00etan hain zuzen ere. Hemendik aurrera, asteazkeneko elkartuko dira leku eta ordu berean festen inguruan hitz egiteko. Antolatzailerak adierazi duten bezala, bilerak irekiak dira eta edozeinek har dezake parte. Honela, jai aberatsagoak eta parte-hartzaileagoak izango direla ziurtatuz. Ohikoa den bezala, Ugarte auzoko jaiak urriari ospatuko dira. Urriak 5, 6 eta 7ko asteburuan izango dira, hain zuzen ere.

TOLOSA ▶ GIZARTEA

Bihar abiaraziko dute IX. Garagardo festa

22 garagardo ezberdin dastatu ahal izango dira; janari eta edariak gain hainbat ekitaldi izango dira asteburuan

ESTI EZEIZA

Beltzak, horiak, ilunak eta gorriak, denera 22 garagardo ezberdin dastatu ahal izango dira bihartzik igandera bitartean. 18:00ak aldera zabalduko dituzte ateak Tolosako Garagardo Azokaren IX. edizioak.

Aurtengoan ere kirol taldeak aritu dira antolatzaile lanetan. Tolosaldea IKT, Hegoalde nesken areto futbol taldea, Tolosa CF txirrindulari taldea eta Judo Klub taldea hain zuzen ere. Ostegunetik larunbatera bitartean 18:00etatik 24:00etara egongo da irekita azoka. Igandean berriz, eguerdian ere zabalik izango da. 1.400 eserleku inguru prestatu dituzte lau gunetan banatuta. Alde batetik, Plaza Zahar-



Urtero bezala, azokaren baitan pedal eguna ospatuko da. GARAZI AZKUE

an karpa bat ipiniko dute. Bessetik, Zerkausiko hiru solairuetan jarriko dituzte mahaiaik.

Edariak gain, Garagardo Azokako ohiko jakiak ere das-

tatu ahal izango dira datozen egunetan: salbitxak, ukondoa, euskal pastela, irasagarra eta gazta. Baina Garagardo Azoka ez da janari eta edarean baka-

EGITARAUA ▶

BIHAR
20:00. DJ-Black Zerkausian.

ETZI
20:00. Vista Alegre txaranga Zerkausian.
20:00. DJ-Black Zerkausian.

HILAK 15. LARUNBATA
17:00. Pedal eguna San Frantziskon.
22:00etatik 05:00etara. Trikujai Disko Festa.

HILAK 16. IGANDEA
17:00. Marioneta tailerra Trianguloan.
18:00. Xakea, Plaza Zaharrean.

errik geratzen. otorduez gain beste hainbat ekitaldi ere izango dira egun hauetan, festa herri guztira zabalduz. Besteak beste, pedal eguna, disko festa, txotxongilo tailerra eta xakea izango dira. Bestalde, jendea afaltzen ari den bitartean giroa alaitzeko, hor izango dira DJ Black eta Vista Alegre txaranga. Parranda zaleentzat berriz, larunbatean Disko festa izango da Beotibarren.

TOLOSA ▶ KULTURA



Haurren eguna izan da gaur, La Jaran

E. Ezeiza ▶ La Jara elkartearen Kultur Astearen baitan haurren eguna ospatu zuten atzo. Ederki igaro zuten gaztetxoek elkarteak antolatutako jolasetan. Egunari amaiera emateko eta indarrak berreskuratzeko txokolatada izan zuten. Ekitaldiekin jarraituz, gaur 19:30etik aurrera Extremadurako jaki bereziak dastatu ahal izango dira. Horien artean, apurak, patata tortila, gazpatxo, tomate eta piper entsalada... prestatuko dituzte. E. EZEIZA

Donostialdeko enpresa batek AGENTE KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN eta DONOSTIAN - ERREFERENTZIA: 07-AGK

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Merkataritza kontratua.
- Soldata interesgarria.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

Kontuan hartuko da:

- Publizitate eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali irailaren 20 baino lehen. gizabaliabideak@jarduna.net
HELBIDE ELEKTRONIKORA. Gogoan izan erreferentzia zehatza

hitza

Praktikak HITZAn


Kazetaritza, Euskal Filologia eta Komunikazioa lizentziatutako Tolosaldeko eta Leitzaldeko ikasleei zuzendua

Curriculum-a bidali helbide hauetara:
Araba etorbidea, 5 behe- atzea • 20400 TOLOSA
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

ERAKUSKETA ▶



70. hamarkadatik gaur egunera arte. Eskuinean ikusten diren koadroak 70. hamarkadakoak dira, hau da, Etxeberriaren lehen emaitzak. Ondoren etorriko lirite, koadroetan ikusten direnen eskulturak, eta koloretsuak eta linealak diren ezkerreko bezalako koadroak. I. TERRADILLOS



Bloke koloretsuak. 70. hamarkadan blokeak edo harriak txuri beltzean pintatuak azaltzen dira, baina gerora, kolore biziak emango dizkio egileak. I.T.



'Arimaren garrasia'. Gerra Zibilean fusilatutako ziztutenei omenaldia egiten dien lana da. I.T.



Tinta eta luma-muturra. Azken urtean Etxeberriak eginiko lanetako bat da hau. Tinta eta luma-muturrez eta ikatz-ziriz eginikoak ere baditu. I.T.



Olibondoak. Olibondoaren adarren adibide bat da hau. Heriotza, gaisotasuna, mina... denboraren garrantzia. Heldutasunaren gaia landu nahi du Etxeberriak, «gizarteak tapatu nahi duen gaia». I.T.

GOTZON ETXEBERRIA ▶ ARTISTA

«Gaur egungo gizarteak heldutasuna ezkutatu nahi du»

Andoaindarraren lanak ikusgai daude Aranburu Jauregian

IÑIGO TERRADILLOS

Urriaren 6ra arte ikusgai dago Aranburu Jauregian Gotzon Etxeberriaren (Andoain, 1952) *Olibondoak badu bihotzik* pintura eta eskultura erakusketa. **30 urtez artearen irakaskuntzan aritu eta gero, orain arteari eskaintzea erabaki duzu denbora osoa.**

Bai. Ziklo hori bukatutzat eman dut, ikusten bainuen ez zidala ezer berririk ematen. Dena den, esan beharra daukat asko

ikasi dudala nire ikasleengandik. Hala, azkenaldian eskultura jorratu dut gehiago, baina aurrera begira denetarik egiteko asmoa dut.

Aranburun ikusgai jarri duzun erakusketan zerekin egingo dugu topo?

Bilakaera artistikoa ikus daiteke bertan, 70. hamarkadatik hasi eta gaur eguneraino. Arriaren munduan handiak izan diren lagunak izan ditut, Remigio Mendiburu, esaterako. Hala, bera eta Gaur taldeko

beste artista batzuekin hasi nintzen pinturan murgiltzen. Espazioak izan zuen garrantzia nere lehenengo lanetan, baina orain, denborak du pisu gehiago.

'Olibondoak badu bihotzik' erakusketa al da denboraren adibide?

Errioxako olibondo batzuen adarrak erabili nituen lan hauek egiteko. 300 urte inguru dituzte, horregatik, denboraren garrantzia. Hauek gizakiak bezala sufritu egin dute. Hel-



I. TERRADILLOS

dutasuna adierazten dute, ezkutatu gabe, izan ere, gaur egungo gizarteak ezkutatu egin nahi izaten dugu.

Nola irakasten da artista izaten?

Ikusten ikasi behar dugu, ku-

riositate hori landu, gauzak kezkatzen, ikusten... Sakondu, liburuen bidez esaterako, eta azkenik emaitza legoke. Baina ez dago zertan orden hau jarraitu beharrik. Bideak irakatsi behar dira, prozesua. ◀

MENDI IBILALDIAK (IV) ▶



Gurpil-Haundi baserria ezkerrean utzita eta zakurren kaiolak ezkerrean, irudiiko bidea hartu behar da. N. URBIZU

Auzoetako sekretu berdeak

Bedaioiko eta Aldabako inguruak ezagutzeko hainbat bidexka daude, eta honakoek Balerdira eta Intxurreko herrixkara hurbiltzeko aukera ematen dute

NEREA URBIZU

Azarnategiak eta Nafarroako muga dira interesgarrienak honako ibilbideetan: Aldabakoa eta Bedaiokoa, alegia. Bedaiokoak 7 kilometro eta erdi inguru ditu, eta Aldabakoak, berriz, 11 kilometro pasatxo. Ez dira zailtasun handikoak.

Bedaioetik atera eta errepidean zehar jaitsiko gara Gurbil-Haundiko bidegurutzera iristeko. Baserri horretatik bide zahar bati ekingo diogu Zarate muinora igotzen den bidea hartzeko. Bide hau zakur talde handi baten ondoan dago eta kaiola horiek guztiak ezkerreko aldean utzi behar dira. Azkarate herrira doan bidea da

hau eta laster utziko dugu, pagadi batean gora igotzeko, Ur-dile muinorako bidea.

Eluso mendigainaren azpitik jarraitu eta muinora iritsiko gara; metro batzuk igo eta Balerdiren magaletik Amezetara eramango gaituen bidearen seinalea ikusiko dugu. Berehala pagadi bat zeharkatu eta hortik behera berriro Bedaioara jaitsi ahalgo gara.

Intxurreko herrixka ingurura

Ibilbide hau Aldabako pilotalekuan hasten da. Elizaren atzetik pinudia igotzen den pista batera helduko gara. Bide nagusiari jarraitzen badiogu, Pagadi baserriaren aurrera iritsiko gara, hor, eskuineko bi-

dea hartuz. Igotzen jarraituz, GR-21 ekin elkartuko gara.

Bidegurutze honetan ezkerreko hartuko dugu eta, Madariagako gainetik jarraituz, Albizurtik igotzen den errepideara aterako gara. Errepideak Labarreketako antenetara eramango gaitu eta, bukatzen den gune horretan, ezkerretik hartu eta mendi gainetik Intxurreko azarnategira iritsiko gara.

Azarnategitik, eskuineko pinuditik, Mandramuñoko bordara jaitsi eta gero, ezkerretik mendia inguratzen joango gara. Errepide batera iristean, ezkerreko hartu eta Lopetedi baserrira joango gara. Ibilbidearen azkeneko zatia errepidetik doa Aldabaraino.



Aldabako elizaren atzetik joanda aldapa gora egin behar da. N. URBIZU

IBILALDIAK ▶

BEDAIOKO IBILALDIA

Iraupena. Bi ordu eta erdi.
Distantzia. 7,7 kilometro.
Gorabehera. 390 metro.
Zailtasuna. Ertaina.
Ibilbidea. PR-GI 112, Bedaioko ibilaldia. Gurpil-Haundi baserria bera ikusteak merezi du. Gipuzkoako handiena dela diote, barruan klaustroa eta guzti izanik.

ALDABATIK INTXURREA

Iraupena. Hiru ordu inguru.
Distantzia. 11, 400 kilometro.
Gorabehera. 387 metro.
Zailtasuna. Ertaina.
Ibilbidea. PR-GI 74, Aldaba ingurua.

▶ Ibilbidearen gunerik garaienean Burdin-Aroko herrixka baten aztarnak ikus daitezke, eta Intxurreko herrixka bezala ezagutzen da. Bertan dauden zuloak, esaterako, jentilek egindakoak direla uste da. Udazkenean ere ziza ugari ikus daitezke, asko, ibilbide honetan; borobilean hazten dira taldeka. Aldabako eliza ere oso bitxia da, «ezkil dorretik» hasita.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Anoeta. Harritzoko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai. Berritze.
Betelu. Hiru logelako etxebizitza. Egonzela, sukaldea, bi bainugela, terraza eta altzariz hornitua. Egoera ezin hobean.
Donostia. Mandasko duke kalean atiko polita salgai. Logela bakarrekota eta eraberritua.
Ibarra. Etxebizitza, 3 logela, sukaldea eta berogailua. Berokuntza eta igogailuarekin.
Irura. Etxebizitza atikoa. Hiru logelakoa.

Kanpoaldera, oso eguzkitsua, 237.500 euro.
Ibarra. Bi logelako etxebizitza. Eraberritua. 258.435 euro.
Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta gutziz berritua.
Tolosa. Belate auzoan 25 m2ko garaje itxiak, eraikitzen hasita.
Tolosa. Gernikako Arbolan, merkatarizarako lokala bi solairurekin, bakoitzak 35 m2.
Tolosa. Aldaba auzoan, 3 solairuko etxe

atxikia, garaje eta lursailarekin. 297.000 euro.
Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. 70 m2.
Tolosa. Errementari kalean, 3. solairuan, hiru gela. Eraberritua.
Tolosa. Berazubin, eraberrituriko etxebizitza, kanpoaldera, ikuspegi ederrak.
Tolosa. Bialaren ondoan eraberritutako etxebizitza salgai. Garaje zabalarekin.
Tolosaldea. Baserria 10.000 m2ko lursailarekin, egoera onean.

Tolosa. Zumalakarregi kalean. 1. solairuan eta 4.an, kanpora ematen duten bista honekin.
Orio. Aita Lertxundi kalean etxebizitza. 78 m2, kanpoaldera, oso egoera onean.



LEITZA ▶ GIZARTEA



Datorren uda heldu arte igerilekuak itxia egonen diren arren, ez dituzte hustuko. N. GARZIA

Igerilekuak ixtearekin batera, udazken giroa

Joan den igandean itxi zituzten herriko igerilekuak eta egun hauetan, neguan ongi mantendu dadin, lanean ari dira

NAIARA GARZIA

Joan den igandean herriko igerilekuak itxi zituzten hurrengo uda arte. Iraileko lehenengo astean, beraz, zabalik egondu dira, baina eguraldi ona egin arren, Maria Zabaleta igerilekuaren arduradunak azaldu duenez «irailean jendeak beste aldarte bat izaten du. Gainera ura ere hotzagoa dago, eta jendea iri kostatu egiten zaio».

Aurtengo uda aldrebes xamarra izan da. Zabaletak azaldu duenez, abuztua hobea izan da. «Festetan ona egin zuen eta jende ugari etorri zen dutxazera eta parranda egin ondoren lo egitera. Festetan normalean ona egiten badu kanpotar asko etortzen da iluntzera arte lo egitera». Festa ondoren, ordea, iraila gertuago dagoen heinean igerilekuak jendez hustutzen hasten da. «Inguruko

herrietako festak direla ere nabaritzen da, Areso eta Goizuetakoak, esaterako. Gero beste asko oporretara joaten dira festa ondoren, eta beherakada hori nabaritzen da».

Udan zehar, Zabaletaren ustez umeak izaten dira gehienbat piszinaz gozaten dutenak, baina baita gurasoak ere.

Hurrengo uda heldu arte

Herriko igerilekuak hurrengo urtera arte atekak itxi dituen arren, ez dutela hustutzen adierazi du Maria Zabaletak. «Ez dugu hustutzen, gero izotzak egiten dituenean azulejoak lehertu egiten baitira. Orain produktuak botatzen dira negu gutzia pasatzeko, baita plastiko batzuk ere, izotza egiten duenean dena ez izozteko». Igerilekuaren bazterrean egoten diren saretoak ere bildu egiten di-

tuzte hurrengo denboraldira arte. «Normalean jaso egiten ditugu, bestela urte osoan zehar hor utziz gero kolorea aldatu egiten zaie, eta orain zuri-zuri daudenez, horrela mantenduko ditugu». Guzti honen ondoren hurrengo urteko maiatzera arte igerilekuak bere hortan utziko dituzte, eta maiatzean lanean hasiko dira hurrengo udarako dena prest egon dadin.

Igerilekuko festak

Igerilekuan udan antolatutako bi festek erantzun ona izan dutela adierazi du Zabaletak. «Guraso Elkarteak antolatutako festan ez zuen hain eguraldi ona egin, baina umeak joan ziren. Gauze egin genuenarekin jendea oso pozik gelditu zen. eta ziurrenik hurrengo urtean berriro egingen dugu».

LEITZA ▶ LEITZAKO III. TXAPELKETA

12 partida jokatu dituzte asteburuan, Amazabalen

Euskal Herriko hainbat lekutako pilotariek final laurdenak jokatu zituzten 3 egunez



Kadeteen artean igandean jokaturako norgehiagoka. HITZA

N. GARZIA

Leitzako Eskuz Binakako III. Txapelketa aurrera doa eta finalaurrekoak ere badatoz, asteburu honetan jokatuko baituzte. Joan den asteburuan, ostiralean hasi eta igandea bitarte final laurdenak jokatu zituzten Amazabal Pilotalekuan. Orotara, 12 partida izan dira Euskal Herriko pilotariek jokatu dituztenak.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «partida asko jokatzin

dira eta denetatik izandu da, baina igandeko 3 partidak ikusgarriak izandu ziren. Partida gehienak onak izan dira, baina datorren asteburuan finalaurrekoak jokatuko dituzte dira eta maila igokoa da, bizkorrenak gelditzen baitira».

Leitzako pilota eskolakoak «ongi» doazela azaldu dute. «Maila guztietan Leitzako pilota eskolako pilotariak daude, zaharretan izan ezik. Hemen bi pilotari geneuzkan eta kanpoan gelditu dira».

LEITZAKO TXAPELKETA ▶ FINAL LAURDENAK

OSTIRALA, IRAILAK 7

1. Arrieta-Ezkurdia 22, Ansotegi-Iraola 18.
2. Sagastibeltza-Agriano 22, Santesteban-Albisu 9.
3. Lansalot-Tabar 17, Yoldi-Bessonart 22.

LARUNBATA, IRAILAK 8

1. Errandonea-Eraso 18, Lazkanotegi-Garate 9.
2. Egiguren-Espelosin 11, Mendia-Peña 18.
3. Olano-Mariezcurrera 18, Untxalo-Mujika 15.

4. Sagastibeltza

- Egues-Agirre 12, Dario-Mitxelena 18.
5. Aldaregia-Gallurralde 15, Iribarren-Hernandorena 18.
 6. Zelaia-Etxeberria 11, Sanjurjo-Jaka 18.

IGANDEA, IRAILAK 9

1. Jaunarena-Lana 22, Arrieta B.-Lukin 16.
2. Epelde-Perosanz 18, Narbarte-Galartza 22.
3. Onsalo-Mitxelena 20, Urtasun-Keralt 22.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Tel.: 943 65 56 95

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Ibarra. Hilaren 23ko Ibarra Azoka berezian Xepia elkarteak 3. Piparraren Lehiaketa Gastronomikoa antolatuko du. Izen-ematea, *xepiajke@hotmail.com*-en edota 660 392331 edo 679 238784.

Anoeta. Euskal dantza ikastaroa antolatu du Udalak (3 urtetik aurrera). Izen-ematea, 09:00etatik 13:00etara. Informazioa, 943 651200.

Leitza. Jeiki abesbatzak kantu klaseak antolatu ditu urritik aurrera Iruñeko Eugenia Etxarren irakaslearekin. Izen-ematea, 635 714235 zenbakian 16:00etatik 18:00etara.

Leitza. Arkupeak jubilatutako elkarteak irteera antolatu du Benidormera, hilaren 22tik urriaren 6ra. Izen-ematea, elkartearen.

Tolosa. Amarozkoko kantu taldea entsaioekin hasiko da Joakin Artetxerekin. Deialdia irekia da nahi duenarentzat, 20:00etan auzoko lokaletan (Auzoetxan).

Tolosa. Tolosaldea Garatzen-MCCren enpresa ekimen berritzaileak sortzeko lehiaketaren sari banaketa ekitaldia izango da, 18:30ean Aranburun.

Tolosa. Extremadurako plater erregionalen lehiaketa eta dastaketa 19:30ean La Jaran: migak, patata tortilla, tomate zopa, kaldereta, gazpatxo, tomate entsalada eta piper entsalada.

Tolosa. Larunbatean izango den Trikujai Diskofestarako sarrerak salgai daude 3,5 eurotan Kultur Etxean, K-2 tabernan eta Fronton kafetegian. Jaialdia 22:00etatik 05:00etara izango da, N- Sound eta Nemux Gang-ek jarriko dute soinua eta musika. Dantzariak eta pantaila erraldoiak izango dira.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Tolosa, M.I. Kala Nagusia, 7. 943 670648.
Goizuetan. Apeztebea, L. M. Kala Nagusia, 64. 112.
Arribe. Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

Kubatarrak eta indiarrak

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Gaurko parte-hartzaileak bi tolosar dira: Gemma Zelaia eta Amaia Sagasti; lehena Kuban izan da eta bigarrena Indian



HABANA (KUBA) ▶
Gemma Zelaia (Tolosa).

Hau azaldu du Gemmak: «Kuban izan naiz 20 egunetan zehar, batetik bestera, lekuan lekuko, kubatar senideekin biziz eta egunerokotasuna konpartituz. Argazkian agertzen diren bi haur hauekin Habana hirian egon ginen. Irribarre goxo hauek dira nirekin batera ekarri ditudan oroitzapen ederrenak. Benetan hunkigarria! Bertan badago zer ikusi eta zer bixitatu, baina Habanako hirian pentsatzea ezinezkoa da bertako jendearekin oroitutako gabe. Horrexegatik, honako argazki hau hautatu dut, etengabe bizipoza helarazteko gai baitira».

VARANASI (INDIA) ▶
Amaia Sagasti (Tolosa).

Argazki koloretsu bezain ikusgarria bidali digu Amaia Sagasti tolosarrak. «Uda honetan Indian izan naiz, eta hemen bidaltzen dizuet Varanasin ateratako argazki bat: hain zuzen ere, Ganges ibaiari ateratakoa da, jendeak bere bizitza bertan egiten zuela».



AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behe
- ▶ HITZAren egoitza Leitzaan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...